

Pilota ♦ Astearteko partiduko emaitzaren zain gelditzen dira orain Unanue eta Taberna

Partiduari buelta


16-5 galtzen joan eta 21-22 irabazi zuten Tirapu-Armendarizek

Enekoitz Telleria / Donostia

EUSKAL HERRIKO txapelketako finalerdietan aritzeko txartela lortu zuten atzo Tirapuk eta Armendarizek Unanue eta Tabernaren kontura. Ez zen bidean topatutakoa izan. Beotibarreko markagailua 16-5 Unanue-Tabernaren alde gorri ikusi zutenek ez zuten behintzat partidua urdinek irabazi zutenik asko espero atzo. Are gutxiago Mikel Unanue ordu arte egin ari zen jokoa ikusita. Añorgakoari zegokion atzo erantzukizuna hartzea, eta ez zion muzin egin. Oso haserre sartu zen aldalekuetara, eta ez da gutxiagorako. 16-5 bai, baina 21-17 ere joan ziren irabazten, eta ez zuten partidua irabazi.

Badu horrek bere azalpea. Partidu hasiera bikain egin zuten hala Unanuek nola Tabernak. Ez Armendarizek ez Tirapuk ez zuen inork asmatzen Unanue nola gaingitu. Aparteko erakustaldia eman zuten Añorgakoak lehen zati horretan. Asmatu egin zuten sakearekin, Armendarizek entregatu egin zuten pilota eta batean txokoan luze, bestean txapa gainean, partiduko tantorik ederrenak egin zituen Unanuek. 10 tantoko aldea zegoen markagailuan 16-5ekoan, eta ez zirudien urdinak erreakzioa abiatzeko gai zirenik.

Unanueri pilota kentzen asmatzen hasi ziren, ordea, orkoiendarrak. Asentatu egin



EDURNE KOCH

Ritxar Tirapu pilota astintzera, Mikel Unanue aldamenean begira duela.

zen kantxan Armendariz, eta urduri jarri zen ordu arte estuasun handirik gabe jokatzeko ari zen Taberna. Unanuek berak ere pilota pare bat galdu zituen tarte horretan, eta 17-15 jarri zen norgehiagoka. Unanueri zegokion berriro hura konpontzea, eta hala egin zuten. Tentsio handiko tantoak ziren, asko zegoen jokoa, eta bi erremate zoragarri-

kin 21-17 jarri zuen norgehiagoka.

Tirapu erasora

Zirt edo zart egiteko beharrak estututa, Ritxar Tirapuk hartu zuen erantzukizuna. Errematera abiatu zen beldurrik gabe, eta ongi irten zitzazkion gauzak. Sake batekin eta bi errematerekin 21na jarri zuen partidua.

gaurko partidua

EIBAR. 17:00

• Olaizola II.a-Apeztegia / Berraondo-Otxandorena • **Espainiako txapelketa:** Titin-Goñi III.a / Olaizola I.a-Galarza III.a • Tolosa III.a-Gastesi / Haritz-Milikua.

LOGROÑO. 17:00 (ETB1)

• Esain-Arroyo II.a / Atxa-Auxkin • **Espainiako txapelketa:** Capellan-Berna / Goñi II.a-Zezeaga • Dani-Alberdi III.a / Berasaluze VII.a-Matute III.a.

biharko partidua

TOLOSA. 16:30

• Koka-Galarza IV.a / Errandonea II.a-Pascual • **Euskal Herriko txapelketa:** Alustiza-Patxi Ruiz / Nagore-Errandonea • Minguez / Nalda III.a.

GERNIKA. 17:00

• Berraondo-Castro / Alberdi II.a-Egiguren I.a • Castaños-Elizegi / Bereikua-Aranburu • Konpa-Barrondo / Egiguren II.a-Enbil.

Erreakzioa Armendarizek biribildu zuen errebotera jotako pilotakada itzel batekin. Atera kontuak, Beotibarrek 12 koadro ditu.

Finalerdietan ariko dira irabazleak. Unanue-Taberna, berriz, datorren asteartean Berasaluze VIII.a-Imazek Ariznabarreta-Arretxeri irabaztea behar dute. Bigarren horiek irabazten badute, eurrak ariko dira finalerdietan.

txokoan

Iriondo-Rekalde nagusi Deportibon

45-39 irabazi zuten atzo Iriondok eta Rekaldek Euskal Herriko pala txapelketako euren partidua. Daniel eta Garrido izan zituzten aurrez aurre, eta ongi eutsi zieten 36nako berdinketa arte. Irabazleek hobeto jokatu zuten azken txanpa hori, eta txapelketako euren lehenengo puntua lortu zuten.

25 tantotan gelditu zen Ezkurra

Ez zuen berragerpen ona egin Koteto Ezkurrak atzo Galarretan. 25 tanto baino

ez zituen egin Urretabizkaia II.arekin Altuna II.a-Eizagirreren kontra. Kantxari neurria hartu ezinda ibili zen Doneztebeko aurrelaria, eta sumatu zitzaion bere geldialdia. Lagundu zion Urretabizkaiak, baina aurrez aurre bikote indartsua izan zuten.

Besagainen aurkezpena eta desafioak

Arabako Eltziego herrian egin zuen atzo Besagainek 19 pilotariz osatutako bere koadroaren aurkezpena, eta aurkezpenarekin pilota

munduan aspaldion ahaztuak zeuden zenbait desafio ere jarri zituen mahai gainean. Batetik, Besagaineko Lejardi eta Bazeta berriktarrek Aspeko Berasaluze VII.a eta Milikua berriktarrei luzatzen die desafioa herrian bertan. Bestetik, Besagaineko Juan-txo Ansotegik Aspeko Irazola desafiitzen du Lekeitiko pilotalekuan. Bi desafio horietan, irabazleak gelditzen dira sarrera bidez edo apustuarekin lortutako diruarekin. Azken desafioa, berriz, Besagaineko Esnal-Mendiak, Aspeko Atxa-Apeztegia txapel-dunei eta Asegarceko Barbe-

rito VI.a-Zearra txapeldunei luzatzen die.

Aitor Totorika Manilan

Eusko Basque enpresako presidente Aitor Totorikaguna Filipinetan izan da, eta besteak beste bertako Batzorde Olinpikoko presidente Butch Tuasonekin izan du elkarriketa. Filipinetako agintariak Manilan berriro «jai alai» ikusteko euren interesaren berri eman diote Totorikari, eta datorren Munduko Zesta Punta txapelketa Manilan bertan jokatzeko aukeraz ere mintzatu dira.

Txirrindularitza ♦

Turpenek irabazi du L'Essor Basqueko lehen lasterketa

Kaiku taldeko Unai Yus laugarren izan zen

Xabier Usabiaga / Angelu

ETUPES taldeko Ludovic Turpen-ek irabazi zuen L'Essor Basque Saria osatzen duten sei lasterketetako lehena, atzo Angelun. Lasterketa 15 kilometroan erabaki zen. 15 lagunek taldetxo batek ihes egin zuen tropeletik. Talde horretan oso txirrindulari onak zeuden: besteak beste, Frantziako ziklo kros txapelduna izandako Chioti eta iaz profesionalak izan ziren Thibout eta Petilleau. Atzo 25 urte bete zituen Unai Yusek ere lortu zuen ihesaldian sartzea. Azken kilometroetan iheskideen arteko erasoak hasi ziren eta Turpen izan zen azkarrena helmugara aurrea iritsi zen seikotean. Gaur Kanbon korrituko da bigarren proba.

Sailkapena

L'Essor Basque (1. etapa)

- Ludovic Turpen (Etupes)
- Bruno Thibout (La Creuse)
- Eddie Lembo (Etupes)
- Unai Yus (Kaiku)
- Stephan Petilleau (Mantes)

Errugbia ♦

Getxo Artea hirugarren garaipenaren bila

Koldo Alduntzin / Donostia

DENBORALDIKO partidarik garrantzitsuenetakoa izango du gaur Getxo Arteak Faduran (12:00), mailari eusteko lehian izango duen Generalife Granadako hartuko baitu. Lehen Maila Bereziari dagokionez, Bera-Berak Kataluniako L'Hospitalet hartuko du Anoetan (12:00), Bestalde, emakumezkoen Euskadik Akizen jokatzeko du Herm Frantziako txapeldunaren kontra (13:30), eta gizonezkoen Elite 1 Ligako Akize-Beziars partidaren atariko egingo du.